

LAGUNAK DENBORAN GALDUTA

Duela egun batzuk, 6 egun zehazki, lagun batzuk, denboraren makina bat aurkitu zuten. Lagun horiek Poztakulus, Hangru, Negartitis eta Beldurrai ziren. Poztakulus, beti pozik zegoen, eskuzabala eta bihotz-onekoa zen, hanka luzeak zituen eta bizkarrean konkorrak zituen. Hangru, beti-beti haserre zegoen, sari bat irabazietakoan ere bai! Hangru, karratu itxurako gorputza bat zuen eta buztan konkorduna zuen. Negartitis, beti triste zegoen baina bere lagunak ez zekiten zergatik. Negartitisek, ile luzea zuen. Beldurrai beti beldurrez zegoen, bere lagunak ez zekiten zertaz, bizitzaz edo... Beldurraik gorputz triangelua zuen, begi handiak eta besoak eta hankak zituen. Eiger median zegoen baserri batean bizi ziren lagunak, bakarrik.

Egun batean, lagunak jolasean zeuden, baserrian. Denak eskutaketan jolasten zeuden. Bat-batean zarata bat entzun zuten. Ziuuuuuuuuuuung... Puuuuuuum! Denak izoztuta moduan gelditu ziren, zaratarengatik. Bi segundu eta denak korrika hasi ziren kanpora. Kanpoan denboraren makina bat aurkitu zuten. Orduan, denak barruan sartu ziren. Poztakulusek duela 120 miloi urte atzera joateko agindu zion makinari. Orduan, ziuuuuuuuuung, duela 120 miloi urtetara bidaiatu zuten. Bertan dinosauro ikaragarriak aurkitu zuten. Dinosaurioengandik ihes egin ondoren, duela 300.000 urtetara bidaiatu zuten. Duela 300.000 urtean Homo Sapiensak eta Neandentalak lur eremu batengatik eztabaidatzen ikusi zituzten. Orduan zuhaitz batzuen artean ezkutatu ziren eztabaidari begira. Eztabaida bukatutakoan denak zuhaitz atzetik atera ziren. Baina ateratakoan... Roouooooaaaaaarrrr! Kobazuloetako lehoi ikaragarriarekin topo egin zuten. Topo egin bezain laster, lagunak korrika irten ziren, Hangru betiko moduan haserre, Negartitis betiko moduan triste, Beldurrai betiko moduan beldurrez eta Poztakulus, bueno, betiko moduan pozik. Lehoiarengatik ihes egiterakoan denboraren makinan sartu egin ziren eta bertan nora bidaiatu pentsatu zuten. Denek nekatuta zeudela esan zuten, orduan etxera itzultzeko adostu zuten. Baina ezin zuten! Makinak ez zion uzten 2026ra itzultzen, bakarrik pantaila beltzez zegoen hiru gauza idatzita. "2026 itzuli nahi baduzue hiru gauza behar dituzue: Ketzalkoatusen arrautza bat, lehen gizakien gezi bat eta guda zibileko patata tortila bat."

Lagunak hori irakurri ostean, Ketzalkoatusen garaira bidaiatu zuten. Bertan, korrika egin zuten, dinosauroengatik ihes egiteko. Orduan, Ketzalkoatusen kabi bat aurkitu zuten, arrautza batekin eta ez zegoen Ketzalkoatus gurasorik kabia zaintzen. Kabia ikusi eta gero, ziztu bizian korrika irten ziren, arrautzaren bila. Kabira heldu zirenean arrautza hartu eta alde egiterakoan Ketzalkotus bat ikusi zuten. Aaaaaaaaaaaaaa! Ziztu bizian korrika egin zuten, normalean baino askoz azkarrago. Azkenean

bai, Ketzalkoatusetik ihes egin zuten. Ihes egin ondoren hurrengo urtea jarri zuten denboraren makinan. Duela 7.000 urte.

Denboraren makina bidaiatu ostean, duela 7.000 urtera bidaiatu zuten. Orduan, gezia aurkitzen hasi ziren. Bat-batean, Hangruk gezi bat aurkitu zuen. Denak ospatzen hasi ziren, bueno, denak Hangruk izan ezik. Ospatzen zeuden bitartean antzinako gizakien tribu bat zuhaitz atzetik irten zen, baina ez zieten erasorik egin eta beste gezi eman zieten lagunei. Bi geziak hartu eta gero denboraren makinara itzuli ziren.

Orain bi elementu zituzten, azkenean falta zitzaien, guda zibileko patata tortila bat zen. Denboraren makinan 1937 urtean irten ziren. Bonbak eta eskopeten balak jaurtitzen zeuden. Lagunak izutu egin ziren, baina taberna batera joan ziren. Bertako tabernariarekin hitz egiten hasi ziren eta denek galdera bat egin zioten. “ Zela doa dena?” Tabernariak oso gaizki zijoala dena esan zien euskaraz hitz egitea debekatzen ari zirela esan zioten. Orduan, tabernariak tratua bat egin zien. Berak patata tortila bat eman ezkerreko lagunak itzultzen direnean beti euskeraz hitz egingo zutela. Tratua egin ondoren, patata tortila hartu eta korrika hasi ziren.

Denboraren makinan Eiger mendiko baserrira itzuli ziren eta tabernariaren tratua beteko zutela agindu zioten elkarri. Ordutik aurrera Poztakulusek, Hangruk, Negartitisek eta Beldurraik euskeraz hitz egin zuten.

Dinorex